

KOSTUAREN EGITURA

Kostu finkoak bezero kopurua edo esperientzia kopurua handitu arren aldatzen ez diren gastuak dira. Horien artean daude espazioaren mantentzea, hala nola argia, ura edo gasa; webgunearen eta sare sozialen kudeaketa, hosting-a, domeinua edo publizitatea barne; sukaldeko material orokorra, adibidez eltzeak, tresnak edo platerak; eta antolaketa zein kudeaketa lanak, plangintza eta komunikazioa kasu.

Kostu aldakorrak, berriz, esperientzia bakoitzaren edo parte-hartzaile kopuruaren arabera aldatzen diren gastuak dira. Hor sartzen dira elikagaiak, menuaren eta pertsona kopuruaren arabera; edariak; material kontsumigarria, hala nola janari osagarriak edo garbiketa materiala; eta esperientzia gehiago antolatu ala sortzen diren bestelako gastuak.

Eskala-ekonomiek ere eragina dute kostuetan. Parte-hartzaile kopurua handitzen den heinean, pertsona bakoitzeko kostua txikiagoa bihurtzen da, eta elikagaiak kantitate handiagoan erosiz prezio hobeak lor daitezke.

Beste kostu batzuen artean aurki daiteke ardura zibilerako aseguru sinple bat. Tokiko produktuak erabiltzeak kostu pixka bat handiagoa ekar dezake, baina kalitatearen eta autentikotasunaren alde egiten du. Garraio beharrak ere gastu gehigarri bat sor dezake.

Azkenik, hasierako inbertsioa txikia da. Baliabide propioak eta espazio partekatuak erabil daitezkeenez, ez da beharrezkoa hasieratik gastu handirik egitea.